


3. NI ETA NIRE ARROPA LORENTXOREN BUKAERAKO GUTUNA



Kaixo, kaixo!

Zelan zabilzate? Ondo espero dut.

Baina, baina... zenbat gauza ari zareten ikasten, ezta?

Konturatuko zineten zuek eta ni ez garela berdinak, e? Edo zuek eta Argik gorputz-atal antzekoak dituzuela, ezta? Nahiz eta batzuk handiagoak, beste batzuk luzeagoak izan, denok ditugu gorputz-atalak!

Bingoarekin eta bikote-jolasarekin ibili gara, bai ederto! Irati eta Beñat ere jantzi ditugu, zein dotore!

Bukatzeko, ikasitako guztia erabiltzeko, panpina bat egingo duzue. Badakizue gorputz-atal bakoitza non dagoen? Bata bestearekin lotuz panpina osatuko duzue, eta, ondoren, hainbat material erabiliz, jantzi. Gero gelakoei aurkeztuko diezue zuek egin duzuen panpina polit hori.

Zuek bai artista finak!

Patxa handi bana!

